



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN OROITIDAZKIA

2017

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren epaitzen berri zabaltzea.....	3
3. Alde pertsonalak eta lan karga.....	18
4. Alde materialak eta informatikoak.....	20
5. Aurkeztutako erreklamazioak.....	21
6. Ebatzitako erreklamazioak.....	22
7. Ebazteke diren erreklamazioak	25
8. Epaitzak zein aldetarantz eman diren.....	26
9. Auzitegiaren irizpideak.....	30
10. Aurkeztutako gatazkei buruzko iruzkinak.....	30
11. Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak konparatuz eginiko azterketa.....	31
12. Eskatutako irizpenak	34
13. Ondorioak.....	35

1. SARRERA

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboa errekurtsogileen eskubideak era eraginkorrean babesteko printzipioaren adierazpena da, haren funtzionamenduaren independentziak ematen duen bermeagatik. Hala dago jasota bi dokumentutan: 57/2003 Legeko (2003ko abenduaren 16koa, Tokiko Gobernuaren eraberritzeko neurri buruzkoa) zioen azalpenean eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Araudian.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak urtero aurkezten die memoria Udalbatzako kide guztiei. Memoria horretan aurreko ekitaldian egindako jardueren berri ematen da.

Donostiako Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren jarduerak biltzen dituen memoria Udalean aurkeztuko da, eta 2016. urtean egindako lanaren erregistroa jaso du.

2017ko abenduaren 31n idatzitako memorian 2017. urtean egindako lanari buruzko informazioa jaso da eta azken bost urte hauetako hainbat alderdik izan duten bilakaera alderatzeko grafikoak ere sartu dira, hala nola: 2014-2017 epean emandako epaitzek dakarten erabakiak, eta erreklamazioak izapidetzeak eta ebazpenak egiteak dakarren lan-karga.

Finantza Zuzendaritzako Lege Zerbitzuaren Buruaren postua hutsik izan da 2017ko zenbait hilabetetan titularrak erretiroa hartuta. Funtzionario hari dagokio Epaitegiaren Idazkaritza. Halaber, Epaitegiari atxikitako administrari postu bat ere hutsik izan da eta, ondorioz, asko igarri zion organoren jardunak haren falta aldiari, ebatzitako erreklamazio kopurua askoz ere txikiagoa izan zen eta dezente atzerapena sortu zen, baina 2017ko urrian eginkizunak aldi baterako egungo Idazkaritzari esleituta ari da egoera bere onera etortzen.

Auzitegiak, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legeak eta Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Donostiako Udaleko Araudiak xedatutakoari jarraituz, bere dituen eginkizunak gauzatzeko egin duen lana aztertu da. Funtsean, honako hauek oinarri dituzten

erreklamazioak ezagutzeari eta ebazteari jarri zaio arreta batez ere: kudeaketako egintzak, likidaziokoak, zerga-bilketakoak eta zerga-ikuskaritzakoak; baita udalaren eskumeneko zuzenbide publikoko sarreraren nahitaezko zerga-bilketakoak (berezi Udal zehapenak jartzen dira, halakoetan) eta zerga-ordenantzen Proiektuari buruzko txostenekoak.

2. DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN EPAITZEN BERRI ZABALTZEA

Eman diren epaitza garrantzitsuenen berri eman da. Haien espezifikotasunaren arabera aukeratu dira epaitzak.

Orobat, eta interesdunek jakin dezaten, auzitegiaren epaitzek dakarten erabakia udalaren webgunean zabaltzeko asmoa dago. Erabaki horiek doktrina izango dira, gero.

ADMINISTRAZIO PROZEDURA

44. epaitza, onartzekoa. Bahitura zuzemena 2/2005 Foru Arauak finkatutako arrazoi zehatzetako bat gertatzen denean baizik errekurtsua jarri ezin daitekeen arren, finkatutako arrazoiekin batean bada administrazio jarduera orori aplikagarria zaion beste arrazoi orokor bat: zuzemena zuzenbide osoko egintza deusez bilakatzea. Ildo horretatik, jurisprudentziako doktrinak aukera ematen du jatorrizko likidazioari kontra egiteko, premiamendu prozeduran agindutako egintzak aurkaratuz, haren erabateko deuseztasun kausa baldin badago. Hala, Auzitegi Gorenak 1990eko uztailean 10ean emandako Epaiaren bitartez adierazi du premiamendu prozedurak jatorri deuseza duenean ezin duela ondoriorik izan, aipatutako deuseztasuna antzematen den prozedura fasea edozein delarik ere –baita betearazte fasean egonda ere–, zuzenbide osoko deuseztasun kausa edozein unetan antzeman baitaiteke, baita ofizioz ere.

Kasu honetan, zerga organoaren txostenaren arabera, *"prozedura abiatu zenetik kontaktzen hasita 6 hilabeteko epea igarota zen zehapen ebazpena jakinarazi zen arte. Zehapena ezartzea erabaki zen, zehapen prozeduraren iraungitasuna adierazi behar zenean"*.

Hortaz, zuzenbide osoko deuseztasun kausa da behin ebazteko epe luzeena igarota zehazpena ezarri izana.

47. epaitza, gaitzestekoa. Espedientea aztertuta berresten da zehapen prozedura borondatez ordaintzeko epean zegoela erreklamazioa aurkeztu zenean, eta Auzitegiak duen eskumena bere betearazteko prozeduraren aurka aurkezten den erreklamazioa baizik ez duela, hauxe da, zehapen prozedura osoa amaitu eta betearazteko prozedura abian jarri ondoren, orduan duela aukera interesatuak Auzitegi honen aurrean aurkezteko.

Halaxe dago jasota Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak 2001eko irailaren 13an irizpidea bateratzeko xedean emandako ebazpenean: *bide honetako organoen ikuskatzeko eskumena, trafikoko zehapen prozedurari dagozkion premiamendu bidean dauden egintzetan, bide horri berezkoak zaizkion egintzetara mugatuko da soil-soilik, ez ditu aintzat hartuko lehendik izandako kudeaketa egintzak*, eta beraz, ezinbesteko baldintza da, ezin saihestuzkoa, jarduera hori eskumenen mugei baitan bideratzea. Eta kasu honetan, bistan da hondakinen alorreko zehapen prozedura ez dela Auzitegi honen eskumeneko esparrua.

HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA

31. epaitza, ezestekoa: konkurtso prozesuan dauden etxebizitzetako buruzko zergak (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga) eta tasak (ura eta zaborrak) likidatzeari buruzkoa.

Erreklamaturako kredituak (Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga eta Tasak) masaren aurkako kreditutzat kalifikatu behar dira, legeak ezarritako obligazioak direlako edo, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren kasuan, enkante judizialaren ondorioa delako, eta konkurtsoak ez du ordainketan eragiten, konkurtsoaren egoera edozein delarik ere epemugak iristerakoan ordaindu behar baitira horiek guztiak.

Ez da aplikagarria azaldutako pasibo ordaindu gabearen aurreko salbuespena zuzenbide publikoko kredituak direlako (Konkurtsu Legearen 178. artikulua, 5. bis.) eta, ondorioz, aipatutako Legearen 154. 2. artikulua araber, likidaziorik edo masa aktibo nahikorik ez izategatik konkurtsoaren amaiera kasuetan zordun natural pertsonala izango delako ordaindu gabeko gainerako kredituak ordaintzeko erantzulea; hartzekodunek prozedura bereziak abiarazi ahal izango dituzte konkurtsoa berriz ere irekitzen ez den bitartean edo beste konkurtso bat adierazten ez den bitartean.

Erreklamaturako zergen eta tasen sorrera datari dagokionez, jurisprudentzia eta doktrina nagusiaren arabera, Idazkariak enkante judizialaren Esleipena idaztean eskualdatzen da jabaria, eta ez enkantea egiten den egunean.

"Ohiko etxebizitzaren gauzatze hipotekarioaren ondorioz" Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergan salbuespena aplikatzeari dagokionez, ez dago salbuespenik ez delako gauzatze hipotekario bat, baizik eta konkurtso prozesu baten ondorioz egindako enkantea.

32. epaitza, ezestekoa. Erosketa prezioetik behera saldutako finka. Zerga arautzen duen Ordenantzaren 10. artikuluaekin bat etorrira, zerga oinarria finkatzeko ondorioei begira, kontuan eduki beharko da lursailaren balioa sortzapenaren unean. Auzitegiak arauaren okerreko aplikazioa baizik ezin du aztertu, eta ez arauaren betetze hertsitik eratorritako balizko kaltea.

50.etik 67.era arteko epaitzak: espedienteak Finantza Zuzendaritzari igortzea eta erreklamazio ekonomiko administratiboko prozedurak amaitutzat ematea.

Honako hau finkatzen du Aldi Baterako Xedapen bakarrean martxoaren 28ko 2/2017 Foru-Dekretu Arauak, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga aldatzen duenak, berriki onartuak Auzitegi Konstituzionalak 2017ko otsailaren 16an emandako epaiaren (Estatuko Aldizkari Ofizialean martxoaren 25ean argitaratua) ondorioei begira berehalako erantzun arauemaile bat emateko; horrenbestez inkonstituzionaltzat eta baliogabetzat jotzen ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikulua, balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen baitituzte:

“4. Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan edo udaletako auzitegi ekonomiko administratiboetan dauden espedienteak.

"Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboak eta udaletako auzitegi ekonomiko administratiboek kasuan kasuko udalari bidali behar dizkiote ebatzi gabe dituzten espedienteak, haiek zer ikusirik dutenean 2017ko martxoaren 25a baino lehenagoko sortzapenen hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergarekin, eta, behar den kasuetan, udalak likidazio berriak egin beharko ditu foru dekretu-arau honek artikulatu bakarrean xedatutakoa kontuan hartuta.

Aldi berean, prozedurak amaituzat emango dituzte, nahiz eta horrek ez duen eragotziko egiten diren likidazio berrien aurka interesdunek erreklamazioak aurkeztea."

Araudi horrekin bat etorrira, 2017ko martxoaren 25a baino lehenago sortutako zergen aurreko erreklamazioak direnez, bidezkoa da espedienteak Udalari itzultzea.

73. epaitza, onartezina. Auzitegi honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazio bati dagokionez emandako 33/2017 epaitza baliogabetzea bila zen. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 9.2 artikulua eta Donostiako Erreklamazio Ekonomikoak eta Administratiboak ebazteko Arautegiaren 41.1 artikulua ezartzen dute Auzitegiaren ebazpen irmoak ezin izango direla baliogabetu edo aldatu administrazio bidean, ez ofizioz ez aldeak eskatuta ere, horretarako aurkezten den kausa edozein delarik ere, zuzenbide osoko deuseztasun kausa ez bada, akatsak zuzentzeko ez bada edo berraztertze errekurtso berezia aurkezten ez bada.

Beraz, agindu horiek kanpo uzten dute ebazpen ekonomiko eta administratibo irmoak, esate baterako honakoa, baliogabetzeko aukera.

Baliogabetzeko asmo hori ez da epaitzaren berrazterketa justifikatu dezakeen arrazo bereziren bat gertatu delako, besterik gabe eskatzen baita baliogabetzeko prozedura ofizioz abiarazteko, udal Auzitegi Ekonomiko eta Administratiboaren ebazpen irmoen aurrean halakoak espresuki baztertuta daudenean.

80. epaitza, ezestekoa. Erreklamazio egileak zalantzan jartzen ditu, alde batetik, dohaintzaren bitartez gertatzen den jabetza osoaren transmisioaren ondorioz zergapetutako gehikuntzaren sorrera epearen batura eta, bestetik, une bakoitzean izandako jabetza kuota desberdinaren arabera portzentajea aplikatzen den lursailaren balioa.

Erreklamazio egileari ez dio zalantzarik eragiten dohaintzaren egunak (2016ko martxoaren 8an) finkatutako gehikuntzaren igoeraren zenbatekoaren azken egunak. Baina zalantzan jartzen du aipatutako batuketaren hasierako data, zergapetuta dagoen aurreko transmisioaren datari dagokiona, erreklamazio egileak ulertzen baitu data hori oinordekoen komunitatea desegin zen egunari dagokiola (2010eko urtarrilak 14).

Hauxe adierazten du Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 1. artikulua:

"Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko tributua da, lur horiek izaten duten balio gehikuntza zergapetzen du, edozein tituluren bitartez lur horien **jabaria transmititu izanaren ondorioz egiaztatzen den** balio gehikuntza, alegia.

Zerga arautzen duen arautegian zatiezinen lagapen operazioen mendekotasun eza edo salbuespena finkatzen duen xedapenik ez dagoen arren, oparoa da operazio hori aztertzeaz arduratu den jurisprudentzia, eta hain zuzen ere jurisprudentzia hori aztertuta iritsiko gara hemen eztabaidatzen ari garen kontuaren soluziora.

Auzitegi Gorenak 1997ko abenduaren 17an eta 1998ko abenduaren 19an emandako Epaien bidez adierazi du "oinordekoetako bati esleitutako gehiegizkoa, herentziaren judizioz kanpoko banaketaren ondorioz sortua, besteei ekonomikoki konpentsatzeko obligazioarekin, ez dela transmisioa Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondorioei dagokienez, operazio hori banaketak berak aintzat hartzen dituen eskubideen zehaztapenaren edo espezifikazioaren mekanismoaren baitan bideratzen baita".

1999ko ekainaren 28ko Ebazpenean irizpide hori orokortu egin zen ondasun komunitate mota guztietan (eta ez soilik oinordekotzan transmititukoetan).

Beraz, jurisprudenziaren arabera ondasun komunitatea deseginda, kasu honetan komunitate hereditarioa, zergatik salbuetsita egoteko arrazoia da, esleipenaren iraungitzea ez baita berez transmisio egintza, ez baitago beste baten lekua hartuko duen pertsonaren alde aurreko eskubide baten benetako transmisiorik, ezpada finkatzeko adierazpen egintza.

Beraz, gehikuntzaren sorrera epea zenbatzeko ondorioei begira abiapuntutzat hartu beharreko aurreko transmisioa ez da komunitate hereditarioa desegiteko egintza juridikoaren data.

Aitzitik, mortis causa gertatzen den azken transmisioaren eguna da data hori. Hortaz, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren 4.1b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, heriotza arrazoia tarteko egindako transmisioetan zenduaren heriotza eguna hartuko da transmisio datatzat.

Likidazioak jabetzako gela bat 1997ko urriaren 6tik aurrera eta gainerako hiru gelak 2010eko urtarrilaren 14tik aurrera erreklamazio egilearen esku egon direla kontuan hartzeko xedean erreklamaziogileak egiten duen eskeari dagokionez, esan beharra dago dohaintzaren bitartez egindako transmisioaren ondorioz gertatzen dela erreklamazio honen xedeko likidazioa, eta horren arabera jabetzaren % 100a transmititu dela.

Ildo horretatik, hauxe adierazten dute Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4. artikulua eta zerga hori arautzen duen Zerga Ordenantzaren 10. artikulua: "zerga horren zerga oinarria lurren balio gehikuntzak, **sortzapen unean egiaztatutakoak**, eta gehienez ere 20 urteko epean zehar izandako balio gehikuntzak osatuta dago, eta sortzapen une hori "transmisio unean" gertatzen da Foru Arauaren 6.1.a) artikulua arabera.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA

30. epaitza: Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan, kasu honetan gutxienez 25 urteko antzintasuna duen ibilgailua baita, behin eskea eginda aitortzen dira hobariak, eskaera egiten den epean izango dituzte ondorioak, eta ez dute atzera eraginik izango.

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

38. epaitza, ezestekoa. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren errekaruaren aplikazioa ohiko etxebizitza ez izateagatik. Espedientearen arabera, Udalak 2013ko uztailaren 5ean jakinarazi zion erreklamazio egileari behin-behineko alta ematen ziola ohiko etxebizitza erabiltzaile gisa, eta alegaziorik aurkeztu ez zuenez zegokion erroldan jasota gelditu zela. Interesatuak 2015. urtean errekurtoa jarri zuenean Udalak aitortu egin zion higiezin horretan 23.f) artikuluan adierazitako zirkunstantziak ematen zirela, baina, Zerga Ordenantzaren arabera, udal aitortza hori egin arte ez dagoela errekaruaren aplikazioaren salbuespen eskubiderik.

74. epaitza, ezestekoa. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren salbuespena. 12/1989 Foru Arauaren 4.2b) artikulua eta Donostiako Udaleko Zerga Ordenantzaren 9.2 artikuluen arabera salbuespen subjektiboari buruzko alegazioari dagokionez, dagokion Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren xedeko etxebizitzak ez dira artikulua horietan aurreikusitako tipologiaetan biltzen, eta beraz horiei begira ez dago erreklamaturako salbuespena aplikatzerik.

Irabazi asmorik gabeko Erakundearen zerga araubideari eta mezenasgoa bultzatzeko pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 23ko 49/2002 Legearen 15.1 artikuluan aurreikusitako salbuespen subjektiboaren aplikazioari buruzko alegazioari dagokionez, Lege horren 1.3 artikulua adierazten du bertan finkatutakoak ez diela kalerik egingo Euskadiko Lurralde Historikoetan indarrean dagoen Kontzertutik eratorritako foru mailako zerga araubideei.

Foru araubide horri esker, Gipuzkoako Lurralde Historikoak bere araudi espezifikoa du, zehazki irabazi asmorik gabeko erakundeen araubide fiskala finkatzen duen 3/2004 Foru Araua.

Arau horrek 17. artikuluan arautzen zuen salbuespen hori, baina artikulua baliogabetu zuen uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauaren 1. Xedapen Gehigarriak, aldaketa jakin batzuk egin ziren tokiko zerga arautegian, eta ondorioz, 2013ko ekitaldiaz geroztik ez dira aplikagarriak salbuespen horiek.

78. epaitza, baiestekoa. Erreklamaziogileak planteatutako katastroko balio berrien jakinarazpen ezari buruzko kontuari dagokionez, hasteko azpimarratu beharra dago, Tokiko Tributuena Kudeaketa Zerbitzuaren txostenean jasota baitago, erreklamazioa aurkeztu duten enpresek ez zutela adierazpenak aurkezteko obligazioa bete, legeak obligazio hori betetzeko epea bi hilabetetan finkatzen duen arren (Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Kudeaketaren alderdi jakin batzuk garatzen dituen otsailaren 20ko 6/1990 Foru Dekretuaren 3.a) artikulua).

Hala eta guztiz ere gogorarazi behar da kudeaketa partekatuko zerga dela Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, eta Foru Ogasunari dagozkiola katastroaren kudeaketa arloko lanak, haren eskumenekoak baitira higiezinaren katastroa prestatzeko eta mantentzeko eginkizunak; horretarako, higiezinaren ezaugarri fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak finkatzen ditu balioei eta katastroaren ikuskaritza lanei buruzko txostenak onartuta eta aplikatuta.

Bestalde, zerga likidatzeko eta biltzeko eginkizuna duten Udalek bideratu behar dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kudeaketa, baita zerga hori kudeatzeko gainerako egintzak ere.

Kudeaketa partekatu horren ondorioz, subjektu pasiboak katastroko balioen ezaguera formala izatean eragingo dute Zergan katastroaren kudeaketa fasean agindutako egintzek.

Halaxe adierazten da Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 18.3 artikulua bigarren paragrafoan:

"Ondasun higiezinaren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz higiezinaren katastroetako datuetan sartzen diren aldaketek foru arau honetako 11. eta 12. artikuluetan katastroa berrikusi edo aldatzeko jasotzen diren prozedurekin zer ikusirik ez dutenean, interesatuei jakinarazi behar zaizkie Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 105. artikuluan xedatutakoaren arabera".

Bestalde, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak behin eta berriz adierazi du katastroko balorazioaren jakinarazpena ezinbesteko baldintza dela Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren likidazioa legez bideratu ahal izateko (Auzitegi Gorenak 2000ko uztailaren 13an emandako Epaia, RJ 2000-4878).

Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Tokiko Tributuak Kudeatzeko Zerbitzuak (Katastroa) katastroko balioen jakinarazpen individual egokia egiteko baldintza finkatzen du, eta zerga alorreko bermea osatzen duenez, guztiz baldintzatzen du Udalak Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren aurrean bideratutako likidazioen baliozkotasuna, eta aipatutako Zerbitzuak berak 2017ko azaroaren 16an aurkeztutako txostenetik ondorioztatzen denez jakinarazpen hori egin ez zenez, bidezkoa da erreklamaziogileak aurkeztutako alegazioak aintzat hartzea eta egindako likidazioak baliogabetzea; hala ere, udal Zerga Administrazioak egin beharreko likidazioak egingo ditu, katastroko datu berrietan oinarrituta, Higiezinaren Katastroak erreklamaziogileari datu horiek behar bezala jakinarazi dizkiola egiaztatzen denean, haietan finkatzen diren ondorioekin eta kontuan izanik orain baliogabetzen diren likidazioen behin-behineko likidazio izaera eta bat etorrhirik Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 18.4 artikuluan xedatutakoa: *"Zergapeturiko ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoek horiek gertatu ondorengo zergaldian izango dute eragina, baina eragin hori ez da lotuta geratuko egintza administratiboaren jakinarazpenari"*.

**HORNIDURA ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEN ALDE BIDE
PUBLIKOAREN ZORUAN, ZORUPEAN ETA ZORU GAINEAN ERATUTAKO
APROBETXAMENDU BEREZIENGATIKO ETA ERABILERA PRIBATIBOAGATIKO
TASA**

27. epaitza, ezestekoa. Erreklamaziogileak ez du adierazi araua oker aplikatu denik, baizik eta erreklamatzeko duen kaltea araua hertsiki bete izanak eragin diola, baina hori ezin leporatu dakioke araua betearazten duen organoari, ezpada arauzko aurreikuspen zehatzari. Horregatik, eta auzitegi ekonomiko administratiboei ez zaienez esleitu zerga arauen bidez kotasuna edo legekotasuna auzitan jartzeko eskumenik, ezta arauaren aurkako zeharkako errekurtsu bidez ere, Auzitegi honek nahitaez aplikatu eta errespetatu behar ditu arauak indarrean jarraitu bitartean, eta zorrotz betetzen direla zaindu behar du bere azterketapean jartzen diren administrazio egintzetan.

49. epaitza, ezestekoa. Halaxe finkatzen du Zerga Ordenantzak bere 2. artikuluan: "Tasa hauen egitate zergapegarria izango da udal bide publiko, lur eta jabetzetako zorua, lurpea edo hegalkina erabili eta bereziki ustiatzea udalerrri honetako interes orokorreari nahiz biztanle guztiei edo gehieneri zerbitzu hornidurak gauzatzeko."

Era berean, halaxe finkatzen da 5. artikuluan: "Honako enpresa hauek dira zergadunak: interes orokorrekoak edo bizilagun guzti edo askorentzako hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak, nola banatzaileak hala saltzaileak izan, eta bai zerbitzuak egiten diren sareen titular, eta sareen titular ez izan arren haiek erabiltzeko edo haiekin sartzeko edo konektatzeko eskubideen titular direnak."

Enpresa erreklamaziogileak telefonia finkoko zerbitzuak ematen ditu, eta horretarako probetxu berezia ateratzen dio Donostiako udal lurzoru, zorupe edo zoru gainari, eta Ordenantzak enpresak sareen titular izatea eskatzen ez duen arren, enpresa erreklamaziogileak ere ez du egiaztatu

erabiltzen dituen sareak bere jabetzakoak ez direnik, besterik gabe hori adierazi du halako baieztapena egiaztatuko lukeen dokumentu bakar bat ere aurkeztu gabe. Hortaz, tasa aplikatu beharra dago, eta enpresa erreklamaziogilea da tasa horren subjektu pasiboa edo zergapekoa.

Zerga Ordenantzan finkatutako zerga kuotari dagokionez, honako hau xedatzen da 6.1 artikuluan: "Zerga kuota ordenantza honetako eranskinean xedatu da, oinarri hartuko direlarik zergapeko enpresa bakoitzak udalerrian urtean fakturazioa dela eta lortutako sarrera gordinak, hitzarmen bidez onarturiko ehunekoan". % 1,5ean dago finkatuta eranskinean.

Espedientean jasota dagoenaren arabera, enpresak berak aurkeztutako Sarrera Gordinen Adierazpenak aintzat hartuta prestatu dira erreklamaturako likidazioak.

Enpresak dio Zuzentarauaren aurkakoa dela Ordenantza. Ildo horretatik esan behar dugu, kasu honetan erreklamaziogileak ez duela adierazi araua oker aplikatu denik baizik eta erreklamatzeko duen kaltea araua hertsiki bete izanak eragin diola, baina hori ezin leporatu dakioke araua betearazten duen organoari, ezpada arauzko aurreikuspen zehatzari.

Horregatik, eta auzitegi ekonomiko administratiboei ez zaienez esleitu zerga arauen bidezkoasuna edo legezkoasuna auzitan jartzeko eskumenik, ezta arauaren aurkako zeharkako errekurtsu bidez ere, Auzitegi honek nahitaez aplikatu eta errespetatu behar ditu arauak indarrean jarraitu bitartean, eta zorrotz betetzen direla zaindu behar du bere azterketapean jartzen diren administrazio egintzetan."

UDAL JABARI PUBLIKOA ERA PRIBATUAN ERABILI ETA BEREZIKI USTIATZEAGATIKO TASA

70. epaitza, ezestekoa. Likidazioa motibatzen duen arrazoirik ez dagoela adierazten duen erreklamazioari dagokionez, doktrinak eta jurisprudentziak behin eta berriz nabarmendu dute motibazioaren baldintzaren eta obligatutako zergapekoaren defentsaren eskubidearen arteko lotura

estua, baina motibazioa ez da lotura horretara mugatzen, Administrazioaren jardueraren inpartzialtasuna ere bermatu behar baitu.

Kasu honetan, egiaztatuta dago egitate zergapegarria (espedientean dago jasota tasaren likidazioa finkatzen duen eta jabari publikoa erabiltzeko eskubidea ematen duen baimena) eta likidazio horretan daude jasota zerga kuota finkatzen duten elementu guztiak (kalearen kategoria, okupazioaldia, erabilitako azalera).

Hortaz, ez dago arrazoi faltarik, erreklamaziogileak kuota finkatzeko elementu erabakigarri guztien berri izan duelako eta ez delako erreklamaziogilea babesik gabe utzi, hain zuzen ere kuota finkatzeko elementu erabakigarrietako baten aurka egiteko aurkeztu baitu erreklamazio ekonomiko administratibo hau.

Motibazioaren nahikotasunari dagokionez, honako hau finkatzen du Auzitegi Konstituzionalak ekainaren 16ko 36/1982 Epaian: *"motibazio laburrak edo zehatzak, nahikoa adierazgarria bada, ez du esan nahi motibaziorik ez dagoenik, eta ez du baliogabetasunik ekartzen"*.

Metroen kalkuluan oker bat dagoelako erreklamazioari dagokionez, erreklamaziogileak ulertzen baitu okupatutako jabaria ez zela bat eta bera izan obrak iraun zuen bitartean, erreklamaziogileak planteatzen du benetan okupatutako azalera zein izan zen egiaztatzeko neurketak egin behar zirela, baina erreklamaziogileak ez ditu neurketa horiek era formalean planteatu. Dokumentu edo egiaztatgiri gisa obraren faseetan okupatutako azalaren planoak aurkeztu ditu, baina erreklamaziogileak ez du dokumentu horietatik ondorioztatzen zein den benetakotzat jotzen duen azalera, eta ondorioz, erreklamazio bide hau osatzen duen berraztertze fase honetan erreklamaziogileak du okupatutako azalera egiaztatzeko ardura.

Era berean, Udal Jabari Publikoa Erabiltzeari buruzko Zerga Ordenantzaren 12.3 c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorrita:

"3. Udal jabaria erabili edo ustiatu nahi duenak honako hauek bete behar dituzte:

c) Ustiaketan zerbait aldatzekotan, aldatu eta hamabost eguneko epean udalari horien berri ematea".

Azaldutakoa kontuan izanik, eta ikusirik espedientearen aldaketan berririk jasotzen ez dela, eta Hiri mantentze eta Bide Publikoak Zuzendaritzaren 2017ko martxoaren 15eko txostenean azaldutako irizpide teknikoarekin bat etorrira, ezetsi beharra dago alegazio hau.

Era berean atzera botatzen da 2011ko eta 2012ko ekitaldietako preskripzioari buruzko alegazioa, Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 1. Atalak 2016ko urriaren 19a emandako 443/2016 Epaiak (Rec. 679/2016) xedatutakoa aintzat harturik; izan ere, beste egoera berbera baten aurrean Donostiako Udalaren eta erreklamazioa aurkeztu duen enpresa beraren artean izandako auzi bat ebazten du epai horrek. Halaxe dio Bosgarren oinarrian:

"Erreklamaziogilearen tesiaren oinarria da sortzapenarekin bat (udal jabari publikoa okupatzen hasten den unea) ematen zaiola hasiera preskripzio epeari. hala ere, Zergei buruzko Foru Arauaren 22.2 artikulutik ondorioztatzen da badagoela –are, arau orokorra da– zergapetzeko obligazioaren sorreraren eta prestazioaren exigiarritasunaren artean denbora tarte bat igarotzea. Kasu honetan zerga kuota aldeztu aurretik finkatzeko ezintasunak eskatzen du zirkunstantzia hori. Kontuan izan behar da zerga kuota finkatzeko orduan "erreferentziatzen hartzen dela ondasunen erabileratik edo aprobetxamendutik eratorritako erabilerak merkatuan izango lukeen balioa ondasun horiek jabari publikokoak ez balira", eta besteak beste, "mantentzen den denboraren" arabera (Ordenantzen 9. artikulua) finkatzen dela kuota hori. Hortaz, Udalarentzat ezinezkoa zen likidazioa tasaren sortzapena gertatu zen unean bideratzea, ezinezkoa baitzen tasaren zerga kuota zehaztea kontuan badugu aldeztu aurretik ez zela okupazioak noiz arte iraun behar zuen zehaztu.

Preskripzio epearen neurketan "dies a quo"-tzat sortzapenaren unea ez baizik eta okupazioa amaitu zen unea (2011/1/30) hartu izanak ezinezko egiten du Udalak likidazioa bideratzeko duen eskubidea preskribatutzat hartzea, likidazioa 2013/12/27an bideratu baitzen."

Obra 2013ko otsailaren 7an amaitu zenez eta likidazioaren berri 2016ko otsailaren 19an eman zenez, ez da preskribatutzat jotzen likidazioa bideratzeko Udalak duen eskubidea.

UR ETA ZABOR TASA

28. epaitza, ezestekoa. Ordenantzak behartzen du jarduerak Eranskineko sailkapen eta azpimultzoetako batean biltzea. Are, aurreikusten du jardueraren bat Eranskinean jasotako azpimultzo bakar batean ere katalogatuta ez egoteagatik aurkeztutako alegazioren bat aintzat hartuz gero Eranskinean azpimultzo berri bat dagokion mailarekin sartzeko proposamena egingo dela hurrengo ekitaldian. Hauxe da, hurrengo ekitaldira arte ez dago Zerga Ordenantzak onetsitako sailkapena aldatzerik.

39. epaitza, ezestekoa. Zabor tasaren zerga kuotaren finkapena. Erreklamaziogileak adierazi du Administrazioak emandako datuak okerrak direla lokala sotoan dagoelako eta ez udal jakinarazpenean adierazten den bezala kalearen maila berean. Hala eta guztiz ere, Zerga Ordenantza aztertuta ondorioztatzen da datu hori ez dela erabakigarria zerga kuota finkatzeko, kontuan hartzen baitira jarduera mota eta lokalaren azalera, ez ordea kokalekua. Eta ez da jardueraren emaitza ekonomikoa kontuan hartzen kuota finkatzeko garaian.

46. epaitza, ezestekoa. Espedientean dago jasota Uren Udal Zerbitzuak 2012ko maiatzaren 18an erreklamaziogileari bidalitako idatzia. Idatzi horren bitartez jakinarazi zitzaion kontagailua matxuratuta zuela, 7 eguneko epean konpondu behar zuela eta Uren Udal Zerbitzuarekin harremanetan jarri behar zuela kontagailu berria jarria zuela egiaztatu zezan, eta ohartarazi zitzaion eskatutakoa betetzen ez bazuen Araudiaren 79. artikulurekin bat etorri eta kalkulaturako kontsumoen bitartez kalkulaturako zitzaiola faktura, eta hornidura bera eten zekiokeela.

Abonatuak zazpi eguneko epean berritu behar zuen kontagailua, eta gainera uren zerbitzuarekin jarri behar zuen harremanetan kontagailu berriaren funtzionamendua egiaztatu zezan. Eta ez bata ez bestea egin ez zuenez, aipaturako 79. artikuluan xedaturakoari jarraiki kalkulatu zitzaion kontsumoa. Honako hau xedatzen du artikulua horrek:

"Benetan izandako kontsumoa zein den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako, irakurketa egin nahi izan zen momentuan abonaturako pertsona ez zegoelako bertan edo

Uren Udal Zerbitzuari egotz dakizkiokeen bestelako arrazoiengatik, kontsumoaren fakturazioa denbora epe berean eta aurreko urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da; alabaina, neurketa horiek eskura izango ez balira, aurreko sei hilabeteetan izandako kontsumoaren batez beste aritmetikoaren arabera likidatuko dira fakturak.

Aurreko pasartean aipatzen den batez bestekoa lortzeko datu historikorik ez dagoen kasu haietan, kontsumoak aurreko aldietan ezagutzen zaizkion kontsumoen batez bestekoa eginez zehaztuko dira. Hori ere ezinezkoa izango balitz, kontagailuaren kapazitate nominala eta hilean hogeita hamar orduko erabilera izango balu, izango litzatekeen kontsumoaren arabera fakturatuko da.

Modu honetan balioesten diren kontsumoek izaera irmoa izango dute kontagailuan matxurarik bada ere. Eta bestelako balizkoen kontura, non behin irakurketa erreala egin ondoren egoera normalizatuko baita, hala gehiegizko nola gutxienezko kasuan, ondorengo aldi bakoitzean egiten den irakurketaren arabera zehaztuko dira kontsumoak."

Interesatuak dio 2014ko apirilean berritu zuela kontagailua, baina orduan ez zuenez uren zerbitzuak kontagailua egiaztatu zezan eskatu, ez zituen adierazitako obligazioak bete. 2015eko abenduan adierazi zuen kontagailua berritu zuela, eta beraz, Udalak ezin hori jakin zezakeen ordura arte, eta ezin egin izan zituen egin beharreko egiaztapenak 2016ko urtarrilaren 27ra arte (espedientean dago jasota egun horretan uren zerbitzuak idatzitako gorabeheren agiria).

76. epaitza, ezestekoa. Gipuzkoako Udal Ogasunak Arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan espresuki dago araututa zergapekoaren irudiaren ordezkapena tasen kasuan; horren arabera, Udalak, **Foru Arauak espresuki ezarrita**, obligazioa du tasa higiezinaren jabeari exijitzeko zergapekoaren ordezkoa delako, eta Udalak halaxe egin du kasu honetan.

Partikularrak ezin du bere posizioa, legez aurreikusia, aldatu. Ildo horretatik, gogora dezagun Gipuzkoako Zergen Foru Arauaren 17.6. artikulua xedatutakoa: "*Partikularren arteko egintzek edo hitzarmenek ezin dituzte zerga obligazioaren elementuak aldatu, eta Administrazioaren aurrean ez dute eraginik izango, ondorio juridiko pribatuak sortu baditzakete ere*".

Orobat, eta Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legearen 20.1 artikuluekin bat etorruta, "zergei buruzko itunak ez du Administrazioan eraginik izango".

Hori guztia jabeak kuotak onuradunari helarazteko duen ahalmenari kalterik egin gabe.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUAK APARKATZEAGATIKO TASA

48. epaitza, ezestekoa. Erreklamaziogileak zerbitzuan baja emateko eskaera egin zuen baina ez zuen TAO bereizgarria itzuli. Zerga Ordenantzaren 9. artikulua araber, emandako baimenari uko eginez gero itzuli egin behar da bereizgarria, eta seihileko naturalen araber hainbanatuko da kuotaren zenbatekoa.

Era berean, aparkatzeko zerbitzua arautzen duen udal Ordenantzaren 17. artikulua adierazten du berritzen ez den kasuetan bereizgarria itzultzen ez denean pertsona titularra bereizgarriari okerreko erabilera ematen ari zaiola ulertuko dela.

Erreklamaziogileak ez zuen TAO bereizgarria itzuli, eta beraz, arauak ez du seihilekoan hainbanatzeko aukerarik ematen.

3. ALDE PERTSONALAK ETA LAN KARGA


Auzitegiko kideak Udaletik kanpokoak eta independenteak dira: Javier Herrero Aparicio, auzitegiko buru; eta Sofia Arana Landin eta María Teresa Amunarriz Yeregui, auzitegiko kide soil. Beraz, argi dago auzitegiak funtzionamendu independentea duela.


Auzitegiko Idazkaritzari atxikitako langile funtzionarioak direla eta, Ondare eta kontratazio Zerbitzuan lan egiten duten funtzionario hauek dira: administrari bat, lanaldi partzialarekin eta Zerbitzu burua. Azken postu hori 2017ko maiatzaz geroztik hutsik egon denez, kontuhartzaitza

arloko teknikari juridikoak bideratu ditu, behin-behinean, auzitegiko idazkaritzaren eginkizunak 2017ko urriaren 1etik aurrera, era berean lanaldi partzialarekin.

Behin-behinekotasun egoera horren aurrean zazpi Saio egin ditu Auzitegiak 2017. urtean zehar, eta ondorioz, nabarmen gutxitu da erreklamazio ebatzien maila, lana funtsean zerga izaerako erreklamazioak ebazteko eta Zerga Ordenantzak Aldatzeko proiektuei dagozkien urteko txostenak idazteko bideratu baita.

Donostiako erreklamazio ekonomiko administratiboak ebazteko araudiaren 36. artikulua sei hilabeteko gehieneko epea finkatu du erreklamazioak ebazteko, eta indarrean dagoen Zergen Foru Arau Orokorrak prozedura horretarako gehienez urtebeteko epea ezarri du.





4. ALDE MATERIALAK ETA INFORMATIKOAK

Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren egoitzak Udaletxean jarraitzen du, eta bertan egiten dira hamabostean behingo bilerak.

Auzitegiko kideek ordenagailutik eskura ditzakete zirkulazioko zehapenen erreklamazioen espediente osoak.

Aurka egiteko bide hau erabili nahi dutenek paperean aurkeztu behar dituzte erreklamazioak, arautegiko 26.3 artikuluan zehazturikoari jarraituz; halaxe izango da, harik eta informatikako eta informazioko baliabide egokiak garatzen diren arte (erreklamazio ekonomiko administratiboak bide telematikoz aurkezteari buruz Zergen Lege Orokorra garatzeko emandako EHA/2784/2009 Aginduari men eginez). Ordura arte, erreklamazioak paperean aurkezteko

prozedura mantenduko da, arautegiko 26.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz, eta Isun Zerbitzuak egingo ditu espedienteak.

Auzitegiari buruz udal webgunean ageri den informazioari dagokionez, honako hauxe da: erreklamazioak egiteko jarraibideak, erreklamazioetan aplikatu beharreko arautegia, eta urtez urteko oroitidazkiak.

5. AURKEZTUTAKO ERREKLAMAZIOAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.a) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1. artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio «*udal eskumenekoak diren zuzenbide publikoko zergen eta sarreraren kudeaketa, kitapen, bilketa eta ikuskapeneko egintzen gaineko erreklamazioez arduratzea eta horiek erabakitzea*».

Administrazioarekiko diru-erreklamazio horien garrantzia, honetan datza: interesatuek gero bide judicialera iristeko behar duten tresna dela.

2017an, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, ondoren zehaztuko ditugun erreklamazio hauek sartu dira. Kopuruaren, erreklamaturako kontzeptuen eta aurkezte-dataren arabera sailkatu ditugu.

2017an aurkeztutako erreklamazioak	
Zergak	200
Zehapeneko bilketa	113
Zergak ez diren beste kontzeptu batzuk	1
Guztira	314

Zergak	
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	15
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	3
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	6
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	2
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	153
Zerbitzu-Tasa	12
TAO tasa	1
Jabariaren tasa	6
Lizentziagatiko tasa	2
Guztira	200

Zehapenetako bilketa	
Zirkulazioko zehapenak	114

6. EBATZITAKO ERREKLAMAZIOAK

Alde horretatik, zergen arloko erreklamazioak ebaztearen azterketa espezifikoa, auzitegiak eutsi egiten dio sortu zenetik —2005eko ekainetik— izandako irizpideari, hots, zerga-egitateei buruz eta zirkulazioko zehapenak biltzeko prozedurari ez dagokion eskubide publikoko edozein diru-sarrerari buruz eginiko erreklamazioak berehala ebazteko irizpideari.


Erreklamazio horiek berehala ebazten dira; eta zirkulazioko zehapenetako nahitaezko diru-bilketako prozedurei dagozkienak, iritsitako ordenari jarraituz izapidetzen dira, ordena hori baita legez errespetatu beharrekoa, prozedura horiek ebazteko orduan.

Zerga gaietako berehalakotasun hori egiaztatu da: 2017an 199 zerga erreklamazio aurkeztu ziren eta 53 epai eman ziren. 58 erreklamazio ebatzi ziren, hainbat erreklamazio metatzeagatik, horietatik

46 epaitza iaztik ebazteke zeuden erreklamazioei dagokie eta abenduaren 31n 211 erreklamazio geratzen ziren ebazteke.

Eta estatistika egitean auzitegiak dituen hamika urte eta erdiko aldi osoaren ikuspegia hartzen badugu, aurkeztutako 11.402 erreklamazioetatik, 2017ko abenduaren 31n, aurkeztutako erreklamazioen %87,80 zegoen ebatzita.

1.391 erreklamazio zeuden ebazteke, hau da, aurkeztutako erreklamazioen %12,20.



Hala eta guztiz ere, Sarreran aipatutako baliabideen mugak, zerga alorreko erreklamazioei lehenetsuna emateak eta 2017. urtean zehar gertatutako zergen gehikuntzak eragin dute zirkulazioko zehapen prozedurei dagozkien erreklamazioen izapidetzeak atzeratzea. Hauexek dira ebatzi gabeko prozedurei dagozkien erreklamazioen datuak:

2017 113
2016 326
2015 407
2014 321

GUZTIRA 1167

Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari kontu eskatutako Auzitegiaren epaitzekiko gatazkei dagokienez, honako datu hauek eman dira:

Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoetan ebatzitakoak

2005-2017

Epaitza baietsleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren erabakia baliogabetzen dutenak)	9
Zatika baietsitako epaitzak	7
Epaitza ezetsleak (Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren erabakia berresten dutenak)	24
Atzera eginak	5
Auziak prozesutik kanpo betetzea	5
EZ-ONARTUAK	2
Ebazteke direnak	10
Guztira	62


Erreklamazioen aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi errekurtsuez gain, Udal Auzitegi Ekonomiko Administratiboak Arartekoaren hiru kexu espediente jaso zituen 2015, 2016 eta 2017ko erreklamazio ekonomiko administratiboei lotuta, artean ebatzi gabe baitzeuden. Hiruak ebatzi ziren eta epaitzak jakinarazi zitzaizkien interesatuei eta Arartekoari, azken horrek, 2018ko martxoaren 5ean emandako Ebazpenean Donostiako Udalarari gogorarazten dion arren "epeak zorrotz bete behar direla herritarren erreklamazioak izapidetzeko, ebazteko eta jakinarazteko"; era berean gogorarazi zuen "garrantzitsua dela ebazteko epeak laburtzea ahalbidetzen duten neurriak hartzea, herritarrentzat ondorio kaltegarriak baititu administrazioaren borondatea zein den ez jakiteak".

7. EBAZTEKE DIREN ERREKLAMAZIOAK

Urtarrilaren 1etik abenduaren 31 arte, 1.478 erreklamazio ziren ebaztekoak. Haietatik 1.165 ziren 2016. urtetik ebazteke zeuden erreklamazioak, eta 313 ziren 2017an aurkeztutako erreklamazioak.

Erreklamazio horietatik, 88 erreklamazio ebatzi dira 2016an, eta 2017ko abenduaren 31n, 1.390 erreklamazio daude ebazteko.

Auzitegia eratu zenetik 2017ko abenduaren 31 arte egindako lanaren zenbaketa osoa hartuta, denbora horretan aurkeztutako 11.402 erreklamazioetatik, 10.011 espediente ebatzi dira, hau da, erreklamazioen %87,80k badu epaitza.




8. EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREN

Grafiko hauetan ageri da emandako epaitzak zein aldetarantz izan diren: baietsiak, zati batean baietsiak, ezetsiak eta onartezinak. Multzo horietako bakoitzaren kopurua zehaztu da.

	Ezestea	Baiestea	Zati bat baiestea	Onartezina	Guztira
Ekonomia Jardueren gaineko Zerga	1	-	-	-	1
Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga	4	2	-	-	6
Eraikin, Instalazio eta Lanen gaineko Zerga	-	-	-	1	1
Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga	5	19	-	1	25
Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga	2	-	-	-	2
Jabari publikoa	4	-	-	-	4
Zerbitzu-Tasa	8	3	-	1	12
TAO tasa	1	-	-	-	1
Betearazte subsidiarioa	1	-	-	-	1
Guztira	26	24	-	3	53


Zehapenak kobratzeari dagoztien epaitzak zein aldetarantz emen diren			
	Premiamendua	Bahitura	Guztira
Baiestea	-	-	-
Zati bat baiestea	-	-	-
Ezestea	16	11	27
Onartezina	1	-	1
Guztira	17	11	28

Zirkulazioko zehapenen nahitaezko diru-bilketako prozedurako erreklamazioetan, ezestekoak dira erreklamazio gehienetako epaitzak.




Hurrengo grafikoetan, urte horietako epaitzen noranzkoen arteko aldeak bistaritzen dira.


2014ko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREZ




2015eko EPAITZAK ZEIN ALDE TARANTZ EMAN DIREZ



2016ko EPAITZAK ZEIN ALDETARANTZ EMAN DIREZ



2017ko EPAITZAK ZEIN ALDETARANTZ EMAN DIREZ



9. AUZITEGIAREN IRIZPIDEAK

Xede berarekin aurkeztutako erreklamazioak ebaztean, auzitegiak, aurreko ebazpenetan adierazitako irizpideei lotzearen Konstituzio doktrinari jarraituz, ratio decidendi berbera erabili du, zuzenbideko oinarrietan zehaztuta. Eta zuzenbideko oinarri horiek erabiltzen jarraitzeko asmoa du, oraingoz, aurkezten zaizkion kasuetan egitateen edo zuzenbidearen funtsezko aldaketarik izan ezean; izan ere, zuzenbideko oinarri horiek zuzenbidearen arabekoak direla baiteritzogu.

10. AURKEZTUTAKO GATAZKEI BURUZKO IRUZKINAK


Auzitegi honetan aurkezten diren gatazkak, ez dira aurkezten interesdunek erabaki dutelako bide hori hartzea, berraztertze errekurtsoarekin Udalarengana jo beharrean; hala balitz, berraztertze errekurtsoak ebazten dituzten udal-organoen erabakiak ordeztu dituen organo bihurtuko litzateke auzitegi hau. Baina ez da hala, zeren eta udal-administrazioarekiko diru erreklamazioen %90 berraztertze errekurtsoa ezetsi delarik egiten dira, direla zehapenak betearazteko prozedurenak, edo direla udal-zergenak.

Lan-kargak handia izaten jarraitzen du, izapidetzen diren zehapenak betearazteko prozeduretan.

Grafikoetatik ondorioztatzen da, zerga-erreklamazioetako gatazkei dagokienez, erreklamazioak udal-zerga guztiei buruzkoak izan direla: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga; Eraikinen gaineko Zerga; Ibilgailuen gaineko Zerga; Uraren Tasa, Zaborrak Biltzeagatik Tasa, Jabaria aldamioekin okupatzeagatik Tasa; eta Garabi Tasa.

Emandako epaitzen diru-ondorioek, urte hauetan guztietan, erreklamaturako zenbatekoen ezeste-maila bertsuan diraute.

	2014ko epaitzak	2015eko epaitzak	2016ko epaitzak	2017ko epaitzak
Erreklamatuak	544.725,69 €	477.467,24 €	519.415,01 €	841.328,31€
Baietsiak	117.464,01 €	21.501,30 €	54.201,68 €	508.095,88€



11. UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

Ondorengo informazioa eta ondorioak urtez urte egiten ditu Bilboko Auzitegi Ekonomiko Administratiboko kide batek, “*Análisis de litigiosidad y resultados prácticos de la actuación de los Tribunales Económico Administrativos Municipales*” izenburuko txostenean.

Ebazte-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebazten diren, urtero, aurkeztu diren erreklamazioen aldean (urteko ebatziak/urteko sartuak).

Eraitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du sartutakoak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, sartutakoak baino gutxiago.

Eraginkortasun-Tasak adierazten du erreklamazioak zein proportziotan ebatzen diren, erreklamazio guztien aldean (urteko ebatziak/urteko guztiak).

Eraitza 100 baino handiagoa baldin bada, esan nahi du urteko erreklamazio guztiak baino erreklamazio gehiago ebatzi direla; eta txikiagoa bada, erreklamazio guztiak baino gutxiago.

Ebazteke dagoenaren Tasak neurtzen du zenbat urte beharko lirakekeen urte bukaeran ebazteke diren espedienteak ebazteko (abenduarien 31n ebazteke diren espedienteak / urteko ebatziak).

Ebazte-abiadurak neurtzen du zenbat urte behar diren espediente bat ebazteko (urteko guztiak / urteko ebatziak).

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOKO ERREKLAMAZIOAK

	ERREKLAMAZIOAK	2017	2016	2015	2014
1	Urtarrilaren 1ean ebazteke	1.165	1.128	1.608	1.536
2	Urtean aurkeztuak	313	425	486	1.205
3	Urteko guztizkoa (1+2)	1.478	1.553	2.094	2.741
4	Urtean ebatziak	88	388	966	1.133
5	Abenduaren 31n ebazteke (3 -4)	1.390	1.165	1.128	1.608

DONOSTIAKO UDAL AUZITEGI EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAREN ANALISIA

Urtea	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Abiadura
2014	94,02	41,34	1,42	2,42
2015	198,76	46,13	1,17	2,17
2016	91,29	24,98	3,00	4,00
2017	28,11	05,95	15,80	16,80

2016ko ZIFRAK KONPARATUZ EGINIKO AZTERKETA

2016	Ebazpena (%)	Eraginkort. (%)	Ebazteke dagoenaren Tasa	Ebazte-abiadura
Sevilla	139,66	31,77	2,15	3,15
Madril	142,04	62,26	0,61	1,61
Malaga	100,63	77,12	0,30	1,30
Donostia	91,29	24,98	3,00	4,00
Valentzia	85,68	54,96	0,82	1,82
Bartzelona	109,42	87,78	0,14	1,14
Bilbo	150,32	73,27	0,36	1,36

Mila biztanleko urtean aurkeztutako erreklamazioen kopurua konparatzen da, dagokion urteko urtarrilaren 1ean udal bakoitzak duen biztanle kopurua hartuta, Espainiako Estatistika Erakundeak argitaratutako datuekin.

AZTERKETA KONPARATUA: erreklamazioak, 1.000 biztanleko

	2016	2015	2014	2013
	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle	Erreklam./mila biztanle
Sevilla	4,80	4,18	5,34	7,36
Madril	1,37	1,64	2,06	2,74
Malaga	1,11	0,95	1,3	1,26
Donostia	2,28	2,61	6,47	6,42
Valentzia	1,19	1,10	0,98	1,33
Bartzelona	0,22	0,34	0,21	0,27
Bilbo	0,45	0,86	1,73	3,86

12. ESKATUTAKO IRIZPENAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 137.1.b) artikuluan eta Donostiako Udaleko Erreklamazio Ekonomiko Administratiboak Ebazteko Arautegiko 1.1 artikuluan ezarrita dagoenez, auzitegi honi dagokio zerga-ordenantzen proiektuei buruz irizpenak ematea.

2016ko uztailaren 19an, Ogasuneko eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak zerga ordenantzen proiektuei buruzko irizpena eskatu zion Auzitegiari, 2017rako zerga ordenantzen aldaketa jasota.

Proposamenek zergapetze tasa edo zerga kuotak aldatzea dakarte, 2017ko ekitaldirako zerrendatzen diren zerga hauek direla eta:

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga; Ekonomia Jardueren gaineko Zerga, Eraikenen gaineko Zerga, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Hiri izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga, Udalaren jabari publikoa okupatzeagatiko Tasak, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuak Udalaren Bide Publikoetan aparkatzeagatiko Tasak, Lokalak irekitzeko eta bertan jarduerak burutzeko ematen diren Lizentziei dagozkien Tasak, Zerbitzuak Emateagatiko eta Udal Jarduerak Egiteagatiko Tasa, Estolderi zerbitzuari dagokion tasa, Zaborra biltzeko zerbitzua emateagatiko tasa eta Ibilgailuak Ibilgetzeko eta Bide Publikotik Kentzeko Zerbitzua Emateagatiko Tasa.

Auzitegiak, 2017ko uztailaren 29an egindako bileran, eskatutako irizpenak eman zituen. Proposamenen aldeko irizpenak izan ziren.

13. ONDORIOAK

Azterketa honetatik nabari da auzitegi honek jarraitzen duela auzitegia ezartzearekin lortu nahi zen helburua betetzen: herritarren zerbitzura diharduen doako tresna izatea, zuzenbideko profesionalak esku hartzea eskatzen ez duena; eta Udalarentzako hobekuntza elementu bat izatea, eguneroko kudeaketa egitean ihes egiten dioten okerre antzemanaz.

2017. urtean eginiko estatistikak ikusirik, bere horretan dirau zirkulazioko zehapenekin eginiko betearazte prozeduren erreklamazio kopuru handiak, eta nabarmen egin du gora Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren likidazioei dagozkien erreklamazio kopuruak. Azken horiek batez ere Auzitegi Konstituzionalak 2017ko otsailaren 16an emandako Epaiaren (2017ko martxoaren 25ean eman zuten argitara Estatuko Aldizkari Ofizialean) ondorio dira; lege horrek inkonstituzionaltzat eta baliogabetzat jotzen ditu Gipuzkoako Lurralde Historikoko Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.1, 4.2.a) eta 7.4 artikulua, balio gehikuntzarik gabeko egoerak zergapetzen baitituzte. Epai horrek eske ugari eragin ditu jada irmoak ziren zergaren likidazioei dagokienez.

Epai horren 7. oinarri juridikoaren azken paragrafoak honako hau xedatzen du:

*“Azkenik, adierazi beharrekoa da zergapetzeko gehikuntza dagoen edo ez **erabakitzea legegileari soilik dagokiola**, arauen osaera aukeratzeko askatasuna duen aldetik, epai hau argitaratzen den unetik, eta zergaren lege araudian egokitzen hartzen dituen aldaketak edo moldaketak egingo dituela, hiri lurren balio gehikuntzarik gabeko egoerak ez zergapetzeko modua ezarri ahal izateko”.*

Garbi dago, horrenbestez, balio gehikuntzako edo balio gutxipeneko egoera zehaztea gaiari buruzko legeak emateko ahala duenak baino ez dezakeela egin, eta, beraz, hura ez den beste edozein organok ezin duela halakorik egin.

Ahal hori baliatuz onartu da Hiri lurren balio gehikuntzari buruzko zerga aldatzen duen martxoaren 28ko 2/2017ko Foru Dekretu-Araua, Gipuzkoako Batzar Nagusietan baliozkotua 2017ko maiatzaren 3an.

Foru Dekretu Arau horren artikulua bakarrik xedatzen du beharrezkoa dela terreneen balio gehikuntza bat gertatzea, hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren betebeharrak tributariora gisa sortu dadin; horrez gain, gehikuntza hori gertatu den edo ez erabakitzeke oinarri hartu beharreko arauak ere xedatzen ditu.

Foru Dekretu Arau horrek, xedapen iragankor bakarrean dio hiri lurren balio gehikuntzaren gaineko zergaren likidazioak 2017ko martxoaren 25a baino lehenagoko sortzapenei badagozkie, eta data hori baino lehen hartu badute irmotasuna, ez zaiela aplikagarria izango araudi berria, eta, beraz, ez direla zilegi izango zuzenketak, bihurketak edo itzulketak egitea Foru Dekretu Arau horren artikulua bakarrean jasotakoa oinarri hartuta.

Araubide iragankor hori aplikatuta Auzitegiak 19 espediente itzuli zizkion Udalari, eta Udalak, 2018an zehar, ebatzi egingo ditu aurkeztutako erreklamazioak onartutako Foru Dekretu-Arauari jarraiki.

Epaimahaiak ondo daki giza baliabide gehiago behar dituela, gutxienez aldi baterako, pilotutako erreklamazioak ebazteko eta legezko epeak betetzeko aukera emango duen lan-dinamika bat ezartzeko.

Horrela, gainera, behin betiko erantzuna emango litzaieke Arartekoak aurkeztutako kexei.

Oraindik ere informatikako dema dugu, auzitegiko idazkaritzarako, prozeduraren izapideak informatizatzea, eta hori Donostiako Udaleko Administrazio Elektronikoari buruzko Araudiaren eta azaroaren 6ko 1671/2009 Errege Dekretuaren (2007ko ekainaren 22ko 11/2007 lege garatzen duena, herritarrek zerbitzu publikoak bide elektronikoz erabiltzearena) onespenearekin bat etorruta, eta bereziki Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 legearekin bat eginez, azken hori aurtengo urrian jarriko baita indarrean.



Udaleko Auzitegi Ekonomiko Administratiboa
Tribunal Económico Administrativo Municipal

Ijentea, 1 - Tel. 943481617 - 943481000 - Faxa 943481667 - www.donostia.org
20003 Donostia-San Sebastián

Informatizatzea lortuz gero, hurrengo aldira iritsiko ginateke: interesdunek baliabide informatikoak erabili ahal izango lituzkete, erreklamazioak aurkezteko, eta auzitegiko idazkaritzak sistema horren bidez jakinarazi ahal izango lituzke izapide, ebazpen eta epaitzak.

Donostian, 2018ko azaroaren 29an

Auzitegiko idazkaria

Auzitegiko lehendakaria

Sin.: Eukene Muñoa

Sin.: Javier Herrero Aparicio.